

[Eusk/Cast] Kontraesan erreformistak / Contradicciones Reformistas

JON IURREBASO ATUTXA :: 30/04/2019

Los reformistas, capital y burguesías en general no quieren ni oír hablar de enfrentarse a la “democracia” española y francesa que nos opprime y explota.

[Euskara]

Errepasatu ditugu Ezker Abertzale Ofizial eta Erreformistako (EAOE) kideren batek edo bestek idatzitako artikuluak eta plazaratutako adierazpenak, okupatzen eta zapaltzen gaituzten espanyiar eta frantses sistematan, eskubide osoz, txertaturik dagoen Ezker Abertzalea. Halako hausnarketak dira, gure iritzi apalean, erreformismoaren adierazgarri bat gehiago, konstante bat euren eguneroikoan, eta neurriz eklektikoa den jarrera ideologikoa berretsi egiten dute. Ezta keinu iraultzaile txikienik ere galeriarentzat, era berean, etengabeko eskizofrenia politiko eta ideologikoan mantentzen dituzte euren oinarri sozialetako kide batzuk.

Batzuentzat “mendekua” da euskal preso politiko eta senideekiko espetxe politikaren oinarri praktikoa (eta lasai-lasai geratzen dira), beste batzuentzat, estatu-krisialdia eta lurralte-eredua direla eta, “zigortzat” jotzen dute estatu okupatzaileen jokabidea (eta soilik espaniar estatuaz ari dira, berriro ere frantsesaz ahaztuta), hau da, estatuak ez du asmatzen, hortaz, zigortu egiten qaitu.

Horiek horrela, Spainia, beste behin, krisialdi orokorrean bizi da, bai eta, eredu autonomikoari dagokionez ere. Hemen esango dugu aspaldiko kontua dela espaniar estatuaren krisialdi orokorra, nahiz eta deskonposizio eta desintegrazio maila guk nahi bestekoa ez izan. Edonola ere, krisia ez da zigorraren zergatia, estatu kapitalistak eta imperialistak baizik, eta Euskal Herriak aske izateko grinari irmo eusten diolako, eta gaur egunean euskal iraultza sozialista duqu hori lortzeko bide bakarra.

Beraz, egizue krisiaren inguruko aipamen gutxiago zerutik eroritakoa balitz bezala, eta, simpleki, bere jatorriaren inguruko aipamen gehiago, hau da, klase borroka eta gaur egun fase imperialista eta monopolista dagoen kapitalismoaren etengabeko krisia. Erreformistek, sozialdemokratek, burokratek, burges txikiek eta espainiar, frantses edo eusko erregimeneko intelektualek eta gainerakoek ahalegin handiak egiten dituzte klase borroka ezkutatzeko eta, horrenbestez, ez dute gai horrekiko jarrerarik agertzen, ia egunero EAOEk egiten duena.

Klase borroka saihestu, sisteman sartzeko apustua egin, Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoari uko egin eta hainbeste eman dutenen adorea, ilusioa eta borrokatzeko gogoa galdu izana justifikatu ezinik dabiltzanez, EAOEk beldurtu nahi gaitu. Diotenez, subiranotasunaren alde egin gabe posible da ere euskal preso politikorik ez egotea. Alegia, arquudio politiko nagusi qisa beldura sartzen diute gorputzean.

Aldi berean, ezta independentzia ere ez dute aipatzen, eta subiranotasunaz ari dira. Oinarririk, eztabaida zintzorik eta iruzurrik gabeko jarrera eta ildo politikoz aldatzeko trikimailua darabilte, eta horrek lemak, kategoriak eta oinarri burgesak aldarrikatzera garamatza, horiek erabat gureganatzeraino. Zergatik batzuek erabiltzen dute subiranotasuna zein independentzia, ustez, esanahi berberarekin? Era berean, euskal preso politikoak esan beharrean, “presaok” besterik ez darabilte, eta halaxe ikusi eta irakurri dugu agerraldi politiko eta artikulu ugaritan. Horrek azalpen bakarra du: arrakalak sortzea gure jarrera politiko eta ideologikoetan: hurbilenetan, bihozkorrenetan eta nabarienak direnetan.

Gauza bera gertatzen da azken borroka zikloaren gainditzeaz aritzen direnean, hau da, izandako konfrontazio politiko-militarraz hitz egitean. Beste tranpa berri bat, izan ere, begibistan dagoenez, konfrontazioa eta enfrentamendua ez dira gauza bera, are gehiago baldin eta borroka politiko-militarrez ari bagara. Zer dela eta erabiltzen da testuinguru horretan? Bada, enfrentamendu terminoa desagerraraztea nahi dutelako.

Halako “zehaztasunak” ez dira huskeria. Behin eta berriro “konfrontazio” terminoa erabiltzeak estatu okupatzaile eta zapaltzaileen kontrako enfrentamendua arbuiatzea dakar berekin, armekin edo armariak gabekoa. Erreformistek, kapitalak eta burgesiek, oro har, ez dute espainiar eta frantses “demokrazia” okupatzaile eta zapaltzailearen kontrako enfrentamenduz berba bat ere entzun nahi.

Aldi berean, seinale edo idea multzo bat transmititzen dute, itxura denez, solte direnak. Desberdintasunen munduan bizi gara, inperfektua, bai..., baina konfrontazioa aipatuz, ez, ordea, enfrentamendua. Zergatik? Enfrentamenduarekin gure buruari geroz eta galdera gehiago egiten hasiko ginatekeelako eta, agian, sistemaren erreformak baliagarriak ez direla konturatzeko gai garelako, hortaz, sistema goitik behera aldatu beharko litzatekeela ondorioztatuko genuke.

Alde batean zein bestean diskurtso eklektikoaren konstatazioa ikus dezakegu. Subiranotasuna aipatu eta, aldi berean, errepublikaz eta independentziatz ari diren bitartean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako estatua hobetu nahi dute. Horrelakoak ez dira hutsegite soilak edo gauza berdina adierazteko modu desberdinak, dena ondo kalkulaturik baitago. Gauza bera etorkizunean presoak egongo direla aipatzen dutenean (guk euskal preso politikoak deitzen diegu). Ondo ulertu al dugu? hau da, nahiz eta, lotsaren lotsaz, alderdien lege espainiarra onartu, sistemaren barruan sartu eta inor baino legalistagoak izan, gaur egun espetxeraturik daudenez gain, preso politiko gehiagorik izango al ditugu etorkizunean? Etorkizuneko koiuntura aztertu al dute ala berriro beldurtu nahi gaituzte benetako geldiketa politikoak justifikatzeko? Hala nola, erresistentzia-ekimenak, errepresioari egin beharreko erantzuna, nazio eta klase posizionamendu argia eta abar.

Aipatzen ari garen mundu horretako baten batzuek zera galdetzen diote haien buruari: “nola ekin zikloei eta nola itxi?” Dagoeneko 2019. urtean gaudela gogoratzen dugu, bada, 2009ko esku kolpe sozialdemokrata, burokrrata eta *entregistaren* ondorioz eztabaidarik gabeko estrategia aldaketari ekin zitzaison, eta horixe planteatzen da orain. Kolpea (demokratikoa ote?) jo zutenen beste ebidentzia txiki bat dugu hori, halaber, gauzak egiteko modua (lehenago zein geroago).

Badago euskal preso politikoen aterabideari buruzko gogoeta egiten duenik, oraingoak eta etorriko direnak gure jardueragatik (AOERen jardueraz ulertu behar da). Ikaragarria eta patetikoa, izan ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik abiaturik, burgesia eusko-espaniararekin sinatutako estatutu berriaren hitzaurreak kontraesan astunagoa dakarkigu. AOEEn nork esan du presoak sortzen dituen jardunbiderik izango denik? Horrek ditu bi konsiderazio, batez ere, haueskundeei begira: bata, lerroak estutu eta gero gerokoak, euskal preso politiko gehiago egongo omen direlako, baina orain dagokiguna dagokigu; bestea eta, aldi berean, paradoxikoa bada ere, ondo kalkulaturik dago, kontua da beldurra sartzen jarraitzea.

Esatea, azkenik, iraina dela, AOEren “abian” prozesuaren bi eztabaideak eta gero, hainbeste presorekin egin daitekeenaz hitz egitea, oraingo presoei etsaiaren legeriari atxikitzeo eta bizimodu euren kabuz bilatzeko aspaldi esan zitzaiela jakinda.

Zoritzarrez, argi dago etorkizunean euskal preso politikorik egongo direla, alabaina, klase borrokatik bere alderdi guztieta eta Euskal Estatu Sozialistaren aldeko borrokatik aterako dira.

Oharra.

Jakina! abstentzio aktibo eta iraultzailearen aldeko jarrerari eusten diogu hauteskunde ziklo osorako, nahiz eta apirilak 28an mezu beldurtzaile/posibilistak “garaile” atera. Euskal Estatu Sozialista eraikitzeo ez dago bide baketsurik ezta okupatu eta explotatu gaituzten klaseeiko paktuen bitartez soluziobiderik egongo.

[Castellano]

Hemos repasado diversos artículos y manifestaciones de gentes de la Izquierda Abertzale Oficial y Reformista (IAOR) insertada, de pleno derecho, en los sistemas español y francés que ocupan y explotan a Euskal Herria. En nuestra modesta opinión estas reflexiones son un exponente más del reformismo que a diario profesan. Se vuelven a reafirmar en su posición ideológica medidamente ecléctica. No muestran ni siquiera un amago revolucionario para la galería y mantienen a ciertas gentes de sus bases en una continua esquizofrenia política e ideológica.

A la vez que algunos califican el fundamento práctico de la política penitenciaria como de “venganza” (y se quedan tan panchos), para las y los presos políticos vascos como para sus familiares, otros aseveran que los Estados que nos ocupan, y en este caso el Estado Español (olvidando una vez más al Estado francés), nos “castiga” por su crisis de Estado y su modelo territorial. Es decir, como el Estado no acierta, nos castiga.

Así pues, España, una vez más, está en una crisis general que incluye a su modelo autonómico. Aquí tenemos que decir que hace mucho que el Estado español está en crisis general aunque no en el grado de descomposición y desintegración que muchas anhelaríamos. En todo caso no nos castigan porque están en crisis. Nos castigan porque son Estados capitalistas e imperialistas y porque Euskal Herria no ceja en su empeño de ser

libre y que, a estas alturas, solamente lo podrá ser mediante la revolución socialista vasca.

Así que, menos repetir lo de la crisis como si hubiera caído del cielo y más exponer sencillamente que viene derivada de la lucha de clases y de la continua crisis del capitalismo, hoy en su fase imperialista y monopolista. Los reformistas, socialdemócratas, burócratas, pequeños burgueses e intelectualidad del régimen (español, francés o vasco) y demás, se esfuerzan en ocultar la lucha de clases y, por consiguiente, evitan mostrar su posición ante ella. Eso es lo que hace la IAOR quasi a diario.

La IAOR, no pudiendo justificar el obviar la lucha de clases, la apuesta por la integración en el sistema, la renuncia a la independencia y el socialismo para Euskal Herria, la pérdida del ánimo, la ilusión y la voluntad de luchar de tanta gente que ha dado tanto, intentan meternos miedo. Manifiestan que incluso sin pretender la soberanía conseguiríamos que no hubiera presos políticos vascos. Es decir, nos meten el miedo en el cuerpo como argumento político por excelencia.

Al mismo tiempo ya no hablan ni siquiera de independentismo sino de soberanismo. Este truco de cambiar de posición y línea política e ideológica sin fundamentarlas, sin debate franco y sin trampas, nos lleva a repetir lemas, categorías y fundamentos burgueses hasta hacerlos nuestros. ¿Por qué algunos utilizan indistintamente soberanía e independencia para supuestamente pretender decir lo mismo? Asimismo hablan de los “presos” en vez de “presos/as políticos/as vascos/as. Lo hemos visto y leído en no pocas intervenciones públicas y escritos. Eso no tiene otra explicación que erosionar nuestras posiciones políticas e ideológicas más cercanas, sentidas y evidentes.

Lo mismo que cuando hablan de superación del último ciclo de lucha, de la confrontación político-militar que se mantuvo... De nuevo nos encontramos con otra trampa. Es evidente que no es lo mismo confrontación que enfrentamiento. Es mas evidente cuando la lucha es político-militar. ¿Por qué utilizarla entonces en ese contexto? Porque quieren hacer desaparecer el término enfrentamiento.

Estos “detalles” no son una cuestión baladí. Machacar con el término “confrontación” conlleva el rechazo a enfrentarse a los Estados que nos ocupan y explotan ya sea incluyendo las armas o no. Los reformistas, capital y burguesías en general no quieren ni oír hablar de enfrentarse a la “democracia” española y francesa que nos opriime y explota.

A la vez, trasladan un conjunto de señales o ideas, al parecer sueltas. Un mundo desigual, imperfecto, si..., pero confrontemos, no nos enfrentemos. ¿Por qué? Porque si lo hacemos igual acabamos haciéndonos cada vez más preguntas y, en ese caso, igual no nos valen las reformas del sistema y, en cambio, llegamos a la conclusión que de lo que se trata es de cambiar el sistema de arriba abajo.

Por uno y otro lado constatamos su discurso ecléctico. Lo mismo hablan de soberanía que de república e independencia mientras pretenden mejorar el estatuto de las vascongadas. Estas cuestiones no son simples deslices o maneras de expresar lo mismo de diferente manera. Todo esto está calculado. Como cuando manifiestan que en el futuro habrá presos (nosotros decimos presos/as políticos/as vascos/as). ¿Estamos entendiendo bien que aún aceptando hasta la vergüenza la ley de partidos española, integrarnos en el sistema, etc.

siendo más legalistas que nadie vamos a tener presos políticos en el futuro además de los que ya están? ¿Eso es un análisis de la posible coyuntura o de nuevo intentan meternos miedo para justificar la auténtica paralización en cuanto a iniciativa de resistencia, respuesta a la represión, posicionamiento nacional y de clase claro, etc.?

Dentro de ese mundo que aludimos hay quien pregunta “¿cómo abordamos y cerramos ciclos?” Recordamos que estamos ya en 2019. Es decir, el debate que faltó antes del cambio de estrategia del 2009 producido por un golpe de mano socialdemócrata, burócrata y entreguista, nos lo planteamos ahora. Otra pequeña evidencia de quiénes dieron el golpe (¿democrático?) y cómo hicieron las cosas en el 2009. Y antes y después

Hay quien reflexiona acerca de cómo sacar a los presos políticos vascos que hay en la actualidad y los que vendrán debido a nuestra actividad.... (Se entiende a la actividad de la IAOR) Impresionante y patético pues la firma del preámbulo del nuevo estatuto con la burguesía vasco-española partiendo de las vascongadas no hace sino mas pesada la contradicción. ¿Quien ha dicho en la IAOR que vayan a hacer algo que genere presos? Esto nos lleva a dos consideraciones, sobre todo, cara a las elecciones. Una, cerrar filas en el sentido de que más adelante ya haremos algo porque habrá presos políticos vascos según dicen, pero que ahora toca lo que toca. La otra y, al mismo tiempo, y aunque resulte paradójico está bien calculado, la cuestión es no dejar de meter miedo.

Por último decir que es un insulto después de los 2 debates “abian” de la IAOR disertar sobre qué vamos a hacer con tanto preso, cuando a los y las actuales ya se les dijo hace tiempo que se acojan a la legislación del enemigo y que cada cual se busque la vida.

Por desgracia claro que habrá presos y presas políticas vascas en el futuro pero como consecuencia de la lucha de clases en sus diversas facetas y como consecuencia de la lucha por la consecución del Estado Socialista Vasco.

Nota.

Por supuesto que mantenemos la posición de abstención activa y revolucionaria para todo este ciclo electoral, aunque el 28 de abril haya “vencido” el miedo y el posibilismo. No hay un camino pacifista ni tampoco ninguna solución que venga de tratos con los enemigos de las clases que nos ocupan y explotan.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-kontraesan-erreformistak-contradicciones>